

134/2025 EBAZPENA, otsailaren 20koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez agintzen den argitaratzea lanbide-garapeneko ohiko deialdian (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko abenduaren 10eko 1723/2024 Ebazpenaren bidez argitaratutakoan) onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda.

Azaroaren 22ko 395/005, otsailaren 27ko 35/2007 eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuen 11. artikulua ezartzen duenez, Osakidetza Zuzendaritza Nagusiari dagokio mailaketarako ebaluazio-prozesuaren deialdia egitea. Dekretu horien bidez, Osakidetza lan egiten duten lizentziadun sanitarioen, diplomadun sanitarioen eta lanbide-heziketako pertsonal ez-sanitarioaren eta sanitarioaren lanbide-garapena arautzen da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 10eko 1723/2024 Ebazpenaren bidez arautzen dira Osakidetza mendeko zerbitzu-erakundeetako profesionalentzako 2024ko ekitaldiko lanbide-garapenaren maila esleitzeko ohiko deialdiaren baldintzak, eskabideak eta ebaluazio- eta esleipen-prozedurak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 10eko 1723/2024 Ebazpenak agindu zuen argitaratzea lanbide-garapeneko ohiko deialdian (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko 10eko 1723/2024 Ebazpenaren bidez argitaratutakoan) onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 10eko 1723/2024 Ebazpenaren 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, behin-behineko zerrenda argitaratzearen aurka ohiko deialdian bertan ezarritako epean egindako erreklamazioak ebatzi ondoren, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartuko da, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoiak adieraziko dira.

Aurreko guztiagatik, eta emandako ahalmenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Onartzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 10eko 1723/2024 Ebazpenaren bidez argitaratutako deialdian parte hartu duten Osakidetza zerbitzu-erakundeetako profesionalen artean onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda, Ebazpen honen eranskinetan jasotako zerrendaren arabera:


I. eranskina: Ohiko deialdian onartutakoen behin betiko zerrenda.

II. eranskina: Ohiko deialditik kanpo utzitako eskabideen behin betiko zerrenda, baztertzeko arrazoiak adierazita.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioko Osakidetza–Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluaaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025ko otsailaren 20a

GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA


 **Osakidetza**
Josune Retegi Ormazabal
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Sin.: JOSUNE RETEGI ORMAZABAL

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA